



“Pobreen abokatua”
igandean zendu zen 86
urte zituela

2015eko otsailaren 27a, 430 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

JOXE MARI OLAZABAL GOGOAN

Berdintasunaren aldeko kalejira, martxoaren 7an

Martxoaren 7an, larunbatarekin, “Martxoak 8 emakume” kalejiraren edizio berria egingo dute eguerdiko 12:00etan hasita.

Astearte arratsaldean Basteron egin zuten aurkezpen ekitaldian, “Martxoak 8 emakume” kalejiraren lekukoa emango dutenen pertsonen eta taldeen aurkezpena egin zuten. Agerraldi parte hartzailea izan zen, kalejiran protagonista izango diren askok beren esperientzia jendaurrean agertzeko aukera izan zutelako. Datorren larunbatean, martxoak 7, Andoaingo kaleetan barrena berdintasunaren aldeko kalejira koloretsua burutuko da. Lekukoa eramaten ibiliko dira, besteak beste, base-




Martxoaren 7ko kalejiran parte hartuko duten hainbat herrikide.

ria, kirola, euskara, kultura edota hezkuntza mailako pertsonak eta elkarteak. Elkarreei dagokio-

nez, Axeri Dantzako taldearena aipagarria da. Datorren larunbateko kalejiran emakumezkoek gain,

dantzan egiten duten gizonezkoak ere gogoan hartuko dituzte. [ANDOAIN, 4. ORRIALDEA]

Piano doinuak Andoainen asteburu honetan



Hamargarren urteurreneko erakusketarekin eta piano kontzertuekin, hasiera ezin hobea eman diote piano jaialdiaren X. edizioari.

[ANDOAIN, 9. ORRIALDEA]

Sahara gogoan



Andoainen Sahara herriaren alde ohiko bilakatu dira elikagai bilketa eta bertso saioa.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Langarda auzuneko etxeei behin betiko irtenbidea emango diote

Batzorde bereziaren iritziarekin bat eginez, Amenabar enpresak saneamendu lanak bere gain hartzea aho batez onartu du Udalak.

Urte luzez konpondu gabe zegoen arazoari behin betiko irtenbidea emango diotela dirudi. Ur zikinak eta saneamendu azpiegiturak Amenabar enpresak bere gain hartuko dituela aho batez onartu du Urnietako

Udalak. Erabakiarekin ados daude ordezkariak hiru alderdiek. **EAJ-PNV** pozarren dago behingoagatik lanak behar bezala egiteko konpromisoa hartu dutelako.

PSE-EE alderdiak ez du iraga-

neko agintarien erantzukizuna oharkabean igarotzea nahi.

EH Bilduk gidatu du batzorde berezia. Gustura daudela diote, egindako lanarekin eta lortutakoarekin.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Printze txikia

Musikala

20 laguneko abesbatza eta 10 aktore
Adin guztientzako



TXIMI-TXAMA ABESBATZA

Martxoak 8, igandea
Sarobe AEG
12:00etan
Sarrera 3 €

Aurresalmenta:
Sarobe eta Lekaio
kultur etxean,
martxoaren 2tik aurrera



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Maite Pagazaurtunduari:

Aiurrin idazteak, ezagutuko duzu noski, ematen didan aukera aprobetxatuz, gutun irekia idaztea erabaki dut, bai baitakit Aiurrik adierazpen askatasuna errespetatzen duela, eta ez didala inongo eragozpenik jarriko. Ongi legoke zuk ere aldizkari honetan zerbait idaztea ez baitzue erreparorik jarriko; eta Aiurri bezalako astekari bat ere izan daiteke bizikidetzat eta erreparaziorako bide egokia.

Duela egun batzuk, irakurri ahal izan dut “Josebaren postontzi edo gutunontzia” jarri duzuela eskultura zaintzen duen zuhaitzean. Hamabi urtean urtero gogoratzuz, Oroimenaren proiektua berrasmatu nahi izan dizue, eta Andoaingo biztanle baten aitorpenarekin estreinatu: “Nik beste aldera begiratu nuen. Sentitzen dut eta lotsatzen naiz”. Artikulua irakurtzen jarraitzen dut: “Pagaza” familiak Josebaren heriotzaren hamabigarrenari esan nahi berezia eman nahi izan dio, eta postontziaren ideia sortu zen” (Nik euskaratua). Dirudienez, zure ideia izan zen, Maite, Europatik zentozen bidaia medio. Postontzi honen bidez, idatzi anonimoak zein sinatuak jaso nahi dituzue familiari egindako kaltearen erreparazioa itzuliz, krimen harren erantzukizun sozial eta politikoak onartuz. Badirudi, denbora laburrean buzoian bertan gutun bat jaso duzuela, eta internet bidez mezu gehiago. Sare sozialek ere hedatu da nonbait eta badira ehunetik gorako aitortpenak. Nabarmena Andoaingo biztanle batena, zeinak lekuko izan baitzen hilketa gertatu zenean. Kanpotik bidalitakoak ere badira dirudienez. Eta Ana Carrere Andoaingo alkateari zuzendutakoak ere bada: “Ez dizut soilik postontzia ez erretiratze eskatzen baizik eta isiltasunetik atera zaitezela eta bat egin ezazula terrorismoa gaitzesten dutenekin”. Vargas Llosa idazle ospetsuak ere esan du: “Ongi dago hilketa gehiago ez egotea baina beharrezkoa da izandakoak ez ahaztea”. Arantxa batek dio, “Oroitzeak duintasuna eman du”.

Maite hau dena oso hunkigarria da eta Oroimena, Justizia eta Erreparazio lortzeko benetan tresna egokia da. Benetan poztzen naiz eta nik ere postontzira idatzitoxa bidaliko nuke honako hitz hauekin: Josebak ez zuen inoiz bizia galdu behar. Hil zutenek erantzun behar dute eta “oroimena, justizia eta erreparazioa” eskatu behar dira, eta egindako kaltea bere gain hartu behar dute. Hau guztia esan eta onartu ondoren, ordea, eta zuokiko nire elkartzasuna adierazi ondoren, ozenki zenbait hausnarketa egin nahi nituzke. Errespetu guztiz egin ere.

Nire irudiko Andoaingo herrian zein Euskal Herri osoan, postontzi indibidualak jarri ordez, edo biak, sufrimendu guztiak bildu edo oroit ditzakeen postontzia jarri beharko litzateke, herriz herri

Josebaren postontzia

hasita. Sufrimenduak ez du ideologia-rik, ñabardurarik. Sufrimendua barne esperientzia da, latza eta gogorra, noski; eta sufrimendu orok behar du oroimena, justizia eta erreparazioa. Ze ezberdintasun dago zure sufrimendua, nirea, Lasa eta Zabalen senitartekoen eta hainbestereen artean. Bernardo Atxagak zioen: Bizitza bizitza da. Ba, nik esango nuke: Sufrimendua sufrimendua da. Jakina testuinguruak desberdinak direla baina esperientzia bezala ez dut ezberdintasunik aurkitzen. Ni eta beste asko 1960tik 1977ra bitartean gogor torturatuak eta zigortuak izan ginen. Eta hori dela eta sortu zen Goldatu frankismoaren garaiko erreparazioaren oroimen taldea. Argentinan ere izan gara justizia eske baina Espainiako gobernuak deusik ere ez du laguntzen. Espainiako gobernuak Gasteizen egin nahi duen ETAK hildako biktimen aldeko oroimen erraldi horretan sartzen al dira biktimak guztiak? Horra hor galdera. Halere, orain Andoain bertara nator.

Duela gutxi 36ko gerran hildakoen biktimen aldeko Oroituzek deituta, bertan izan ginen Goldatuko bi kide eta Gasteizko Martxoak 3 elkarte beste bi. Gerran fusilatutako argazki ugari zegoen eta ni, benetan, inpresionatuta gertatu nintzen. Familiarteko horien sufrimendua desberdina al da? Sufrimenduari hitza jartzea zaila da, Maite. Horrelako ekintzetan parte hartzea ez legoke gaizki guztien sufrimendua erreparatzeko eta partekatze eta, Andoain izan den dira, beste arrazoren batzuegatik sufritu dutenak.

Baikorrakoa izanik, azken aldian ematen ari dira zenbait topaketa, non biltzen diren ETAK eta motibazio politikoengatik sufritu dutenak. Ikusi izan ditut Pili Zabala eta ETAK hildakoen senitartekoak sufrimendua konpartitzen. Ez zaitut hor ikusi. Gaur bertan egin zaie Buesa eta berarekin hil zuten ertzainari omenaldi bat oroimenaren barnean. Eta poztu naiz ETAK ez baina Estatuko indarrek hildako beste zenbait familiartekoak ikusteaz. ETAK behin betiko desgertzea eskatu behar zaio, jakina eta kaltearen erreparazioa eskatu ere bai, baina baita ere Estatua krimenak egin zituztenei eta, nola ez, hor nagoelako, frankismoaren garaiko torturatzaileei, hiltzeko agindua eman zutenei ere eskatu beharko zaie. Argentinako Servini epaileak aginduak eta izen abizenak jarri dizkie erantzukizuna izan zutenei, hala nola, Martin Villa, etab. Europako Parlamentuan zaudenez interesgarria litzateke Espainiako Gobernuak frankismo garaiko krimenak ez dituelako aztertu nahi saltzea eta proposamenak han aurkezte. Maila honetan Amnistia Internazionalak asko egin du.

Maite, errespetu esan nahi izan dizkizut hausnarketa hauek guztiak, eta, sufrimenduaren esperientzia pairatu dugun guztiokin ikusi nahi zaituztegu. Adietasunez.

Garabide elkarteak dokumentala aurkeztu zuen Basteron

Euskara eta euskaldunak indigenen ikuspegitik



Dokumentalak mezu argia zabaltzen du: egiten duguna txikia izanagatik ere, garrantzitsua da iragana gogoratzeko eta nor garen aitortzeko, hizkuntzak itzali ez daitezen.

Euskara “korapilo uni-bertsal” baten barruan kokatzen dela eta korapilo horren baitan beste hainbat herri daudela dio **Jon Sarasua** Garabide elkarteak. Horren lekuko da aste honetan aurkeztu duten “Bel-tzean mintzo” dokumentala.

“Norbaitek pentsa dezake herri indigenek milaka urtetan eraikitako kulturak eta hizkuntzak alboratu daitezkeela? Norbaitek pentsa dezake euskaldunok ez garela gai izango azken berrogeita hamar urtetan hizkuntza eta kultura berreskuratzeko metatutako esperientzia bestekin partekatze?” Galdera horiek airean utzi zituen **Andoni Barreña** kideak, eta **Ana Carrere** alkatearekin batera, argi utzi zuten zein zen Garabideren egin beharra: euskalgintzaren eta euren hizkuntza eta kultura berreskuratu nahi dutenen artean zubia izatea.

“Zeregin horretan zuek denok behar zaituztegu”, luzatu zieten gonbidatuei. Aurkezpenean izan ziren euskalgintzako eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, hedabideak... hogeita hamar lagun inguru bildu ziren Basteron eta guztiak dokumentala ikusteko gogoz zeuden. Txalo zaparrada batekin agurtu zituzten Garabideko kideen eta alkatearen hitzak, eta adi-adi jarri ziren pantailara begira, hurrengo berrogei minututan ikusiko zutenaren peskizana.

BELTZEAN MINTZATUZ

Dokumentalak hamalau lagu-

“Indigenek dokumentalean euskaldunen herri ekimena eta lan kolektiboa miresten dituzte”

nen ikuspegia biltzen du. Nasa, nahuatl, kaqchikel, aimara, maputxe, maia yukatek eta kitxua komunitateei hitza eman eta nola dauden, zer bizi duten, zein amets dituzten eta euskaldunak nola ikusten gaituzten erakusten du. Hiru edo lau urteko lan karga izan duen ikus-entzunezkoa da, auzolanean egina.

Transmisioa amildegirantz doala eta hainbat hizkuntza betirako galtzearen atarian gaudela esanez hasten da dokumentala. Horren ostean, lekukoek hartzen dute hitza eta barru-barrutik kontatzen dituzte beraien bizipenak. Sentimenduetatik eta emozioetatik azaltzen dute zeinen garrantzitsua den hizkuntza beraien bizitzetan.

“Kultura bat hizkuntzarik gabe ez da ezer”; “hizkuntza bat ez da hobia edo txarra goa, besteak bezalakoa da”; “mundua ezagutu eta bizitzari osotasuna ematen dio hizkuntzak”; “hizkuntzarekin ni naiz, nire familia, nire herria” bezalako esaldiak entzun daitezke protagonisten ahotatik, behin eta berriro.

EUSKAL HERRIA ERREFERENTE MUNDUKO HAINBAT TOKITAN

Euskararen egoera beraien hizkuntzekin alderatzen dute eta, batez ere, hemengo herri ekimena eta lan kolektiboa

miresten dituzte. “D” eredu-ko ikastolak eta Korrika, esaterako, adibide oso interesgarriak iruditzen zaizkie. “Guretzat erreferentia eta anaia euskara da”, diote.

Jon Sarasuaren ustez, kooperazio linguistikoa saretu eta indartu beharra dago. Dokumentalak ere mezu argia zabaltzen du: egiten duguna txikia izanagatik ere, garrantzitsua da iragana gogoratzeko eta nor garen aitortzeko, hizkuntzak itzali ez daitezen. Hala, lekukoek hizkuntza erabiltzearen aldeko kontzientzia eta borrokatze-ko ahalegina beharrezkoak direla adierazten dute.

GONBIDATUAK POZIK ETA HUNKITUTA

Dokumentalaren ostean, ikusle batek baino gehiagok hartu zuen hitza. Denek Garabide zoriondu zuten, egindako lanagatik. Hizkuntza gutxituen hiztunen esperientzia zuzenean jasotzea oso aukera polita iruditu zitzaion eta emozionaltzera iritsi zirela aitortu zuten.

Ana Carreren ustez, dokumentalak agerian jartzen ditu hizkuntza gutxituen oinarriko adierazleak eta berdintasunak. Euskaldunari anaia nagusi izaera jartzeak hunkitu zituen bat baino gehiago eta eredu sentitzeak lotsa eta, era berean, harro sentiarazi zien beste batzuei: “Noizbait txinparta bat sortzen badugu, zerbait ondo egiten ari garen seinale da. Txinparta asko ikusi ditut dokumentalean. Zorionak”.

Trailerra: garabide.eus

UDALAK UR ZIKINAK BIDERATZEKO GABEZIARI IRTENBIDEA EMATEA ADOSTU DU

Langardako arazoari behin betiko irtenbidea

Uste baino gehiago luzatu dira ikerketa eta eztabaida lanak, baina azkenean badirudi Langardako batzorde bereziak eremu horri irtenbidea behingoz aurkitu

diola. Izan ere, berriki Udal ordezkari guztiek aho batez onartu dute Udalak Amenabar enpresarekin konponbidea ekarriko lukeen hitzarmena sinatzea.

Hernani aldera dauden etxeen saneamendu arazoei konponbide teknikoak ematea adostu da, eta baita konponbidea nola gauzatu hitzartu ere. Gauzak horrela, urte luzez konpondu gabeko arazoari irtenbidea emango diote. Izan ere, harrigarria bada ere, gaur da eguna Langardako etxebizitzek bizigarritasun baimenik gabe daudela. Urte hauetan guztietan herritar askok garai hartako Udal agintariak eta etxeak eraikitzeaz arduratu zen Amenabar enpresa kritiken erdian kokatu dituzte.

Erabakia uste baino beranduago iritsi da, 2012ko maiatzeko Udal batzarraldian Langardako batzorde berezia osatzea onartu baitzuten. Orduan adierazitakoaren arabera, ordezkari politikoek auziari bi hilabete epean irtenbidea ematen hasi behar zioten. Atzean geratu ziren, ordea, 2012a, 2013a eta baita 2014a. Eta zertan joan da denbora hori? Bada, ikerketa lanetan, txostengintzan eta informazio pilaketan. Agintaldiaren hasieran konpontzekoa zen arazoa, agintaldiaren amaieran konponduko da.

2012ko udaberrian Bilduren eta PSE-EEren eskariz, "Langardan zeuden hirigintza hutsegiteak presazko izaeraz eta lehenetsunez konpontzeko

ORDEZKARITZA DUTEN ALDERDI POLITIKOEN BALORAZIOA

Urnietan azken hamarkada luzean Langardako etxebizitzaren eraikuntza eta urbanizazioa hamaika arazo eta kexaren sorburu izan da. Etxe haietako jabeek ur zikinak eta saneamendu sarea behar bezala egin gabe eskuratu zituzten giltzak. Orduz geroztik ez ohiko egoeran bizi izan dira. Akordioa lortuta, gaur egun ordezkari duten alderdi politikoek iritzia eman dute.

EAJ-PNV

"Albiste oso positibotzat hartzen dugu, Udalak eta Amenabar enpresak Langardako gaiaren inguruan sinatuko duten lankidetzak hitzarmenarekin, saneamendu sarearekin izandako arazoa konpontzeko giltzarriak

adostu baitira. Amenabarrek sare publikoan eta Langardako bizilagun bakoitzaren partzelan dauden arazoak konpontzeko konpromisoa hartzea lortu dugu".

PSE-EE

"Pozik eta gustura gaude hitzarmen berriarekin, batzorde asko eta prozedura gehiegixko igaro ondoren aho batez onartu delako. Gune horretako eremu publikoari zein pribatuari irtenbide integrala emango diogulako. Arrazoiak ematen zaigu, bere garaian eremu hori Udalari aurkeztutako egitasmoa bete gabe eraiki zutelako. Batzordeak lan egiten jarraitzea eskatu dugu, lanak bere onera emateko eta beharrezko diren erantzukizun teknikoak

eta politikoak eskatzeko. Berreziki bere garaian Udal ardurak izan zituzten EAJ-PNVko alkatea, zinegotziak eta talde politikoak bera".

EH BILDU

"EH Bildukook batzordearen gidaritza eman dugu eta gustura gaude egin dugunarekin, eta baita lortutakoarekin ere. Ardura politikoak daudela ahaztu gabe, indarrak konponbide bat bilatzera bideratu ditugu. Amenabar enpresak lanak burutuko ditu eta etxetako jabeek baimenak lortuko dituzte. Oraindik ere lana badu batzordeak. Obren proiektua eta obrei jarraipena egin beharra dago eta lanean jarraituko dugu. Mugarri garrantzitsu bat jarri arren, prozesua ez da amaitu".

gaia landuko duen batzorde berezi bat eratzea" eskatu zuten. Eskariarekin bat egin zuen azkenean EAJ-PNV taldeak ere. Orduan erabakitakoaren arabera, Bilduko Xabier Yurramendi zen batzorde horren lehendakaria. EAJ-PNVk eta Bilduk bina ordezkari izan dituzte bertan, eta PSE-EEK bakarra.

Batzordearen zereginen artean hauexek aipa daitezke: hirigintza hutsegiteak eragindako kalte eta ondorioen zenbatekoa zehaztuko lukeen finantza-txostenak eskatzea edota hirigintza hutsegiteak konpontzeko aurkez litezkeen proposamen edo irtenbide teknikoak ikertzea.

Batzordeak lanak amaitu di-

tuela esan daiteke. Otsailaren 18ko Udal batzarraldian udal talde guztiek urbanizazioaren arazoak konpontzeko Amenabar enpresarekin sinatuko den hitzarmena aho batez onartu zuten. Onarpen horri jarraipen zorrotza egitea eskatu dute sozialistek, arazoak denboran irtenbiderik ahalik eta azkarrena izan dezan.

Dantza tailer berritzailea Saroben



Ikastaro interesgarria Saroben.

"Ehunek gorputzarekin, espazioarekin eta musikarekin harremanetan jartzen direnean iradokitzen dituzten iruditeriak, emozioak eta mugimendu-kalitateak azalaratzea da proiektuaren xedea". Horrela deskribatzen dute antolatzaileek martxoan eskainiko duten dantza tailer esperimentalak. "Ehundurak versus ehundurak" izena du tailerrak eta martxo lehen bi larunbatetan eskainiko dute.

SONA HANDIKO IRAKASLEAK

Izaskun Lapaza dantzari eta sortzailea. London Contemporary Dance Schoolen trebatu zen.

Iñaki Santos aktorea eta musikaria. Donostiako Arte Eszenikoen Lantegian trebatu zen.

Jasone Alba antzerki zuzendaria eta gorputz-teknikako irakaslea.

MARTXOAN IKASTAROA

Data:

10:00-14:00.

Martxoak 7, larunbata.

Martxoak 14, larunbata.

Izen ematea:

943 008042

sarobe@urnieta.eus



EMAKUMEEN EGUNEKO EGITARAUA

MARTXOAK 4

17:00

Gazteentzako lantegia. "Sare sozialen erabilera". Gazteleku

MARTXOAK 5

18:00

Hitzaldia. "Emakumea, estereotipoak eta komunikabideak". Oihana Etxebarrieta. Lekaito

MARTXOAK 6

22:00

Zinema "Violette". 4 € Deskontuak txartelarekin. Sarobe

MARTXOAK 7

21:30

Emakumeen afaria Oianumen. Afaria + dantzagarriak. 30 €

MARTXOAK 8

18:00

Modelo "klowntrapublizitarioa". Virginia Imaz. 4 € Sarobe

19:30

Elkarretaratze instituzionala. San Juan Plaza



Emakumeentzako ikastaroa

Pepa Bojó Psicoterapeuta. Emakumeekin lan jardunean espezialista.

Sarobe DOAN

Komunikazioa harreman pertsonaletan.

Martxoaren 6tik ekainaren 12ra, ostiral guztietan 15:00etan.

MARTXOAREN 6TIK 13RA JARDUERA UGARI ANTOLATU DITUZTE ANDOAINEN

Martxoak 8 emakume, aurtengo edizioa prest

Emakume langilegoaren nazioarteko egunaren bezperan, “Martxoak 8 emakume” kalejiraren edizio berria ospatuko da Andoaingo kaleetan. Azken urteetan berdintasunaren eta emakumeen eskubi-

deen defentsan burutzen den ekimen ikusgarria eta jendetsua da. Kalejira hainbat pertsonen eta talderen lana omentzeko baliatuko dute, beste behin ere. Aurtengo protagonisten berri eman dute.

AITORTZA JASOKO DUTENAK

- **Baserria:** Ixiar Oiartzabal. Garagorri baserrikoa (Leiozotz auzoa). Andoainen geratzen den esne partitzaile bakarra.
- **Osasuna:** Elena Lertxundi. Andoaingo osasun zentroan herritarrei eskaintzen dien harrera abegikorragatik.
- **Industria:** Maria Ormazabal, Maria Erkizia, Anbroxi Ponce eta Rosario Guiu Laborde lantegian lan egindakoak gizonak nagusi ziren eremuan.
- **Berdintasunaren alde lan egin duen taldea:** Axeri Dantza elkarte. Andoaingo folklorean berdintasunaren alde emandako urratsengatik.
- **Kirola:** Rosa Luena eta Eva Pelaez korrikalariak.
- **Kultura:** Alberto Agirre abesbatza. Herrian abesbatza bakarra urtetan, mistoa eta hainbat ekitaldietan parte hartzen duelako herrian.
- **Zaintza:** Galardi haurtzaindegiko emakume hezitzaileak.
- **Euskalgintza:** Andoaingo AEK euskaltegia. Herritarra euskalduntzen emakumeen parte hartze zuzen eta nagusia.

Kalejira martxoaren 7an Bastero plazatik abiatuko da eguerdiko 12:00etan, Goikoplazan amaitzeko. Bertan ekitaldi nagusiarekin amaiera emango zaio “Martxoak 8 emakume” kalejirari.



Alberto Agirre abesbatzako kideek ere kalejiran parte hartuko dute.



Galardi haurreskolako atzoko eta gaurko langileak. Ezker eskuin: Mertxe Manterola, Garbiñe Otxandorena, Marian Ibaibarriaga, Arantxa Lizarribar, Margarita Bailon eta Ixiar Ansa. Argazkian losune Larreta falta da, hasieratik dagoen emakumea.



Rosario Guiu, Maria Ormazabal, Maria Erkizia eta Anbroxi Ponce Labordeko langile izandakoak. Metalaren sektorean nagusi izan diren gizezkoen artean aitzindariak izan ziren.



TXOTX!

Kantu
liburuxka
2015

Aiurriren eskutik

R. Zabala

943 690 774.... Aduna

Sarasola

943 690 283.... Asteasu

Larre-gain

943 555 846.... Ereñozu-Hernani

Aburuza

943 692 452.... Aduna

Gaztañaga

943 591 968.... Andoain

Oianume

943 556 683.... Urnieta

Altuna

943 554 917.... Urnieta

HURRIA SAHARA ELKARTEAK URTERO ANTOLATZEN DUEN BERTSO SAIOA

Errimak Sahara herriaren alde

Aurreko igande eguerdian bertso saio ederra eskaini zuen oholtza gainera igotako seikoteak. Sahara herriaren alde, bertso saioa urteroko hitzordu bilakatu da.

Aitor Mendiluze, Jexux Mari Irazu, Amaia Agirre, Alaia Martin, Unai Muñoa eta Beñat Gaztelumendi aritu ziren kantuan, Ion Beloki gai jartzailearen esanetara.

GAIA: MOMENTU ARRAROETAN BOTATAKO BERTSOAK

Amaia Agirre:

Hogei bat urte izango nitun memoria ezte herren, koadrilarekin gaupasa egin eta parrandan pozarren, nere gurason balkoi azpian bertsotan jo ta ke ejem, ai zenbat poto egin nituen etxera ez joatearren.

Beñat Gaztelumendi:

Xelebrekeri dezente pasa izan zaizkigu gaurdaino, ta onetatik bederatzi urte ia pasatuak dira, ño. Anaia ta ni han joan ginen Bizkaiko herri bateraino, ta entzutera ez ziren joan gure gurasoak baino.

Alaia Martin:

Dela bi urte ezkontza baten ta enion egin uko, oiartzuarra zen bata eta bestea ingles moduko. Dena ingelesez kantatu nuen bere errima ta punto, ta desiatzen zaudeten arren ez dut berriz kantatuko.

Jexux Mari Irazu:

Goizeko hamarrak urte berritan bezpera baten abaro, Adarrapean hantxe Besabin kanpua gendenak klaro. zer bota ginun ta zer isildu gogoratzeko enago, orduan gauzak ondo zeuden ta grabaziorik ez dago.

Unai Muñoa:

Ze anekdota ta ze pasarte bertsotan ari garena, bertso afaria oholtzako saio txapelketaok problemak. bertso poteo, bertso antzerki probatu ditugu denak, baina dutxatzen irteten zaizkit nere bertsorik onenak.

Aitor Mendiluze:

Behin Zumarragan goizeko hirutan ertzainek alto aurrena, antinieblak zer esan zidan ta libre ta hartu hurrena, gero zer eta bota bertso bat, ta ahaztuko det hau dena, nere bizitzan kantatu dudak bertsorik garestiena.

GAIA: IRAZUK LARRAULEN OMENALDIA JASO NAHI LUKE, ETA MENDILUZERI AHOLKUA ESKATU DIO

Jexux Mari Irazu:

Omenaldi bat egin zizuten detaile finez bete, hementxe bertan jende pila bat hemen bertan alkatea. Bertso eskolako umeak eta

entzule bero tentea lehendabiziko baldintza al da norbere herritik joatea?

Aitor Mendiluze:

Bai, etziguten egingo noski bertan geratu bagina, baina joan eta handik gutxira nolako maitasun fina, dagoen hura ez baita maite falta den hura adina, etxean hala gertatzen zaigu eta herrian berdina.

Jexux Mari Irazu:

Baina ez dago hori konpontzerik zertako hasi ezbaian, ta nonbaitetik hasiko ziran omenaldian usaian, hogeita hemezortzi urte bakarrik eta omenduen gaian, eskultura bat egingo dizute zahartzen zeran garaian.

Aitor Mendiluze:

Ez dakit ba nik esan dezuna pentsa ezazu hobeto. Hogeita hemezortzi urtez omendu egindakoak tarteko, agian horrek esan nahiko du bide berean joateko, edo nahikoa egin dedala ta lata ez emateko.

Jexux Mari Irazu:

Disimulatzen ez zaitez hasi etzizun sortu izua. Omenaldia merezi zendun nunbait bertsotan maisua. Larraulen ere andoaindarrek handia dute pisua, ai Mendiluze zeharka zeharka pasaiezu abisua.

Aitor Mendiluze:

Andoaindarrek egin ninduten omenaldi horren parte, lurakoek beste hainbeste egindakoak bitarte, ta larrauldarrei abisatzeko ez ote da zeure kalte, abisua nik pasa ezkeron neri egingo didate.

Jexux Mari Irazu:

Aitor horire enuke ba nahi nahikoa dezu ta bale. Alde batera zertan ibili omenaldien eskale, zeure herrian lehenbiziko ta ondoren luran dale, ezta ba izango koipe gehiegi ematen dezun seinale.

Aitor Mendiluze:

Inbidia orain agertu zaizu ai Jexux Mari maitea, zerbaitegatik egingo zuten zer nahi dezu esatea, baina zuk segi zoazen gisan mantendu borondatea, askoz hobe da nahiz ta ez omendu merezia izatea.



Unibertsitatea,
inguruko
gizartearekin
inplikatzeko ere bada.

erronkarako #prest

Juan Cabanzón,
Gastronomia eta sukaldaritza arteak,
2. maila.

PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

DONOSTIALDEA • OTSAILAK 28
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI • MARTXOAK 14
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI • MARTXOAK 14
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BIDASOA • MARTXOAK 28
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIALTZA • MARTXOAK 7
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA • MARTXOAK 7
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA • MARTXOAK 21
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

JOXE MARI OLAZABAL IÑURRITA GOGOAN

“Oso bizimodu lanpetua baina pozgarria izan dut”

Artaldean artzaina dagoen bezala, gizarte orotan daude erreferentzia ezinbestekoak. Andoaingo gizarte mailan Joxe Mari Olazabal XX. mendeko pertsona garrantzitsuenen artean kokatu behar da. Xume

eta lana gogotik eginez, gizarte estaldurak lortzen ehunka herrikideri laguntza eskaini zien. “Pobreen abokatua” ezizena Extremadura-ko gizon batek jarri zion, betiko iraungo duen adiera ezin zuzenagoa.

Herrigintzan nahiz lagun hurkoari emana, langile amorratua izan zen gaztetandik Joxe Mari Olazabal. 2009an Aiurriri egindako elkarriketan, ohiko zuen irribarra ahoan, bere bizitza esaldi bakarrera ekarri zuen: “Oso bizimodu lanpetua baina pozgarria izan dut”. Elkarriketa hartan hainbat aipamen egin zituen, hil ondoren gogora ekartzea merezi dutenak:

IÑAKI ARREGI

“Jairoz geroztik, Iñaki eta biok elkarren ondoan bizi izan gara beti: eskolan elkarrekin, JOC-en elkarrekin, zinegotzi elkarrekin, pilotan elkarrekin... Beti lotuta, oso lagunak gara”.

JUVENTUDES OBRERAS CATOLICAS

“Mundu honetara jaio gara eta zer egin behar dugu: lasai arraio bizi edo zerbait egin?, galdetu nion nire buruari. Garai hartan izugarrizko zortea izan genuen JOC ezagutzean.



lazko abenduaren 11n Basteron, Caritasek antolatu zuen “Joxe Mari Olazabalen bidea” ekitaldiaren edizio berria. Argazkian, Arregirekin eta odol emaleekin.

Guretzat eskola handia izan zen. Orduko *Compromiso temporal* delakoa munduko arazo guztiekin konprometitzea zen: politikan, kulturen, sindikalismoan, gizartean nahiz kirolean parte hartzea”.

LAGUN HURKOA

Ondokoa laguntzen eta maitatzen ikasi genuen gaztetan eta, besteak beste, Andezarrateko gaixoei bisitak egiten genizkien.

LANGILE MUGIMENDUA

“Klandestinitatean aritu ginen. Greba askotan hartu genuen parte; ez greba zaleak ginela, behartuta baizik. Langileak oso baldintza txarretan zaudela ikusten genuen eta borroka egin behar genuela zulo horretatik ateratzeko”.

POBREEN ABOKATUA

“Extremadurako gizon batek jarri zidan izen hori. Geroztik

“Mundu honetara jaio gara eta zer egin behar dugu: lasai arraio bizi edo zerbait egin?, galdetu nion nire buruari gazte nintzela”

jendea etxera etorri eta abokatuagatik galdetzean, argi uzten nuen beti ez nintzela abokatu”.

GIZARTE ESTALDURAK

“1946 urtean pentsioak oso txikiak ziren eta askok pentsiorik ere ez zuenez, 70 edo 75 urtera arte egiten zen lana. Instituto nacional de la Seguridad Social-ekin lan mutualitateak sortu zirenean, lagun batek lan ederra egin genezakeela esan zidan: langile batek zer zekik bada lege berri horien inguruan? Inpresoak bete behar eta ez dakite betetzen eta! Modu horretan hasi ginen eta zientoka kasu eraman dugu aurrera: Alargun zeudenak, jubilatatu

nahi eta zein pentsio egokikuko zitzairen ez zekitenak, lan istripuak izandakoak... Etxean hartu eta bakoitzak bere egoera azaldu ondoren laguntzen saiatzen nintzen”.

GAURKO GAZTEAK

“Jakina, beste garai bat bizitzea egokitu zaie: gauza asko eginak bilatu dituzte, estudio aldetik zer esanik ez. Gu hamabi urte betetzerako hasten ginen lanean. Gerora langileen eta pobreen alde egin genuen apustu”.

36KO GERRA

“Zortzi urte nituen gerra garaian baina, atzo izan balira bezalaxe gogoratzen ditut hemengo bonbardaketak. Aurreneko bonba gu bazkaltzen ari ginela bota zuten. Beste batean, frentea Buruntzan gelditu zen eta zortzi egunean izugarrizko borroka izan zen, hildako dezenterekin. Gogorra izan zen gerra baina gogorragoa ondorena”.

Bizirik zegoenean egindako lanaren aitortza jaso zuen



Aiurri Aipamen Bereziak

2009ko otsaila

Aiurri aldizkariak hainbat urtez “Aiurri aipamen bereziak” ekitaldia antolatu zuen gizarte, kultur eta kirol mailako eragileei esker ona adierazteko. Ohorezko aipamena jaso zuen Olazabalek, Manuel Larramendi Bazkunak proposatuta.



Andoaingo Udalaren Domina

2010eko azaroa

Andoaingo Udalak bere ohorezko aipamenetakoa duen “Andoaingo domina” eman zion Olazabali, hamarkada luzez egindako lana aitortuz. Ekitaldi horretan omenduak aitortza belaunaldi oso bati egiten zitzaiola adierazi zuen.



Joxe Mari Olazabalen bidea

2011ko abendua

Andoaingo Caritas taldeak 2011n omenaldi ekitaldia antolatzeari ekin zion, hurkoaren alde lan egiten dutenei bozgorailua eman asmoz. “Joxe Mari Olazabalen bidea” izena du ekitaldiak, eta lehen edizioa Olazabal bera eta bere belaunaldia omendu nahi izan zituzten.

JOXE MARI OLAZABAL IÑURRITA GOGOAN

Joxe Mari Olazabal, gizon eredugarria

XX. mendearen erdialdera ongizatearen gizartea Andoainera iristen laguntzeko Joxe Mari Olazabal eta bere adiskideak gogoratzea ezinbestekoa da. Ikasketa eta jakinduria gutxi baina behar gorria

zuten dozenaka lagunei laguntza eskaini zieten alor ezberdinetan. Behartsuenen alde nabarmendu zen, eta hortik zetorkion "Pobreen abokatua ezizena.

Joxe Mari Olazabal Iñurritak berrogeita hamar urtetik gora eman zuen Andoaingo herritarren alde lan itzela egiten. Ongizatearen gizartea errotzen ari zen urteetan bidegilea izan zen Andoainen. Pentsioa, jubilazioa, bajak,... laguntza eske joan zitzaion askori eman zien bere laguntza kualifikatua. "Berdin zitzaion jatorriz andoainarra zen edo munduko beste puntakoa, kristaua zen ala musulmana edo atea, ikaragarria izan da gizon honek egin duen lana", horixe nabarmendu zuten 2010ean Udalak eskaini zion Andoaingo Domina ematerakoan.

Ekitaldi hartan haren ekarpenen zerrenda zehatza egin zuten. 59 urtez hainbat alorretan buru-belarri jardun baitzuen, garai bateko langileen eskubideen alde, Andoaingo udaletxean, Euskalduna kirol elkartearen, nola, bereziki, Caritas erakundearen baitan behar gorria zutenen alde.

2010eko azaroaren 27ko ekitaldian eskaini zituzten mehezimenduen artean, gizarte mailan egindako lana gogora ekarrita, erraz har dakioke irakurleak Olazabalek egindako lanari neurria. Tamaina handikoa, ezinbestean: "Gizarte Segurantzak ez zen 1966. urtera arte legez sortu, eta ordura ar-



Ongizatearen gizartea errotzen ari zen urteetan bidegilea izan zen Andoainen

te oso konplexua zen aseguru eta gizarte estaldurekin zerikusia zuen kudeaketa lana. Or-

dura arte Instituto Nacional de Previsión erakundeak bere baitan hainbat aseguru eta babes estaldura jasotzen zuen, bakoitzak bere araubide, ezaugarri eta baldintzekin.

Eta haxe izan zen bereziki Joxe Mari Olazabalek bere gain hartu zuen lana, ehundaka herritarri bere lan eta gizar-

Pentsioa, jubilazioa, bajak,... laguntza eske joan zitzaion askori eman zien bere laguntza

te egoerak, bere gaixotasun, ezintasun eta zahartzaro-sariak eskuratzen laguntzea, iza-

Olazabalek eliza katolikoaren baitan aurkitu zuen ia haurtzarotik bere hezibiderako eta ekimenerako leku aproposa

pide eta kudeaketa guztiak egitea hasieratik amaieraraino.

Erraz uler liteke, beraz, zergatik den hain ezaguna Andoainen Olazabalen itzal babesle hori, zergatik hain zabala bere ekimenaren oihartzuna, eta zergatik herritar askok ezagutzen duten *Pobreen abokatua* ezizenarekin. Olazabalek eliza katolikoaren baitan aurkitu zuen ia haurtzarotik bere hezibiderako eta ekimenerako leku aproposa. Hezibide horretan goiburua nagusia izan zuten: hezibidea ekintzagatik eta ekintzarako".

Olazabalek hunkituta eta pozik jaso zuen Udalaren ohorezko aitortza hori, zehaztasun bat erantsiz: Bere burua taldean kokatu zuen, lagun taldean. Alegia, Domina ez zela berea bakarrik, baizik eta belaunaldiko beste kideena ere bazela. Omenaldia soilik horrela ulertzen bazen, Domina jasotzeko prest zegoela adierazi zuen. Taldea aipatzean ezinbestean gogoan zituen Iñaki Arregi koinatua, Irene emaztea, Emilio Trutxuelo eta beste zenbait herrikide eta lagun.

Joxe Mari OLAZABAL IÑURRITA jauna,

AIURRI OHOREZKO AIPAMENA jasotakoa 2009an.

Andoainen hil zen, otsailaren 22an, 86 urte zituela.



Andoainek zuri zor dizu
beste inori ez diona,
Hirurogei urtez behar zuenari
bihotzez lagundu izana.

Abokatua pobreena bai,
jarri zizuten izena;
okerrik gabe, baina ez azaltzen
benetan izan zerana:

Goi-goietatik etorritako
ekintza gizon zuzena,
herri honexek eduki duen
ongilerik maiteena.

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. Beterri, 2015eko otsailak 23

M. LARRAMENDI

Eskelak,
hileta-
oharrak
Aiurrin

@ diseinua@aiurri.com
☎ 943 300 732

TRIANA ELKARTEAREN ESKUTIK

Andaluziaren eguna larunbat honetan

Andaluziaren Eguna ospatuko da Triana elkarteak Nafarroa Plazan daukan egoitzan, larunbat honetan. Andaluziar jatorria dutenak edo eta besterik gabe bertako kultura gogoko duten herritarrek jai

giroan bilduko dira larunbatean, egun osorako iragarrita dauden ekitaldietan. Musika eta dantza tradizionalak ez dira faltako. Eguna ondo igarotzeko lan txukuna egiten aritu dira.

Eguerdiko 12:00etan harrera egingo zaie agintariei eta bertaratzten diren herritar guztiei. Gogoan izango dituzte elkarteko hildako kideak, eta ondoren, usadio bihurtu denez, herrialde hartako ardo finarekin topa egingo dute. Segidan, bazkaria helduko da.

Arratsaldeko 19:00etatik aurrera musika eta dantza izango dira nagusi elkartean, bertan dagoen oholtzan. Elkarteko haur eta gazteek osatutako bi dantza taldek Andaluziako folklorea dantzatuko dute. Horien ondoren, Triana helduen abesbatzaren eta Mertxe Montes bakarlariaren txanda helduko da. Entzuleak dantzan, gorputza astintzen eta txaloka jarriko dituzten emanaldi horiek amaiturik, herri afarira bilduko dira guztiak.

TRIANA ABESBATZA ROCIEROA

Jose Chinchilla taldeko kidea da; Antonio Oñate eta biak gitarra jotzaileak dira, abeslariak erritmoa jartzea egokitzen zaiena. Chinchillak adierazi duenez, 2011n sortu zen abesbatza. "Bi arrazoi edo premi nagusi batu ziren. Batetik, esan behar da elkarteak Andoainen antolatzen dituen ekitaldietarako, eta batez ere meza rozierorako, abesbatza behar izaten dela. Hori dela eta, iraganean, beti kanpotik ekarri behar izaten zen taldea, Lasartetik, Erreteretik... Bestetik, musika zaleak gara, eta zer arraio, elkartu eta abestuz gozatzeko gogo geneukan!".

Bi gitar jotzailearen inguruan, hamar hamabi lagun bildu eta aurrera egin zuten. "Denak edo ia denak Andaluzian jaioak gara, gaztetan heldu ginen Euskal Herrira. Hemen bizi arren, Andaluziako doinuak odolean daramatzagu, eta gogoko ditugu horiek abestea".

Taldea irabazi asmorik gabekoa dela azpimarratu nahi du Chinchillak. Era horretan, "bi



Zutik: Raquel Ortega, Merche Gonzalez Montes, Clemen Garcia eta Jose Chinchilla. **Makurtuta:** Antonio Oñate, Juan Luis Iglesias, Antonio Sanguino, Tomas Cuerva eta Jose Correas.

"Denak edo ia denak Andaluzian jaioak gara, gaztetan heldu ginen Euskal Herrira. Hemen bizi arren, Andaluziako doinuak odolean daramatzagu, eta gogoko ditugu abestea"

helburu sustatu nahi ditu gure taldeak: eurek ondo pasatzea, eta, Andaluziako erritmo eta doinuak zabaltzea. Urtean, zortzi bat emanaldi egin ohi ditugu. Hiru Andoainen eta Herrien arteko jaialdian, Andaluziako egunean edo eta San Juanetan. Eta gainerakoak, Erreterian, Lasarten, Arrasaten, Irunen... Gehienbat herrietako elkarte andaluziarrak gonbidatzen gaituzte".

Musikari amateurrak dira denak, "ez gara ez musikari ez abeslari trebeak, baina abestiei ahotsa jartzen saiatzen gara, munduko borondaterik handienarekin".

Andaluziako folkloreak aberastasuna aldarrikatu du, eta hortik zatitxo bat plazara-



Jose Chinchilla, Triana abesbatzako kitarra jotzaile umoretsua.

tzen saiatzen direla aitortu du. "Andaluziak itsasoari begiratzeko dio eta Amerika zein herri arabiarretatik edan izan du betidanik. Bere folklorea 150 erritmo ezberdin topa daitezke! Geu, sebillanak, paso dobleak eta errunbak, hiru musika mota horietako zenbait abestiekin konformatzen gara. Hortik aurrera, taldeko giroa berotzen den heinean, igual

animatzen naiz Enrique Iglesiasen runba bat jotzera! Egia esan, musika, unibertsa da eta dena dut gogoko. Musika gorputzean daramat, eta orain txar nafar talde bat jotak jotzen hasten bazait, haiengana batu ko naiz batere erreparorik gabe!".

Jose Chinchilla bera da musika gehien ikasi duena abesbatzan. "Lau urte nituela Jaen

"Andaluziako doinuak eta grazia gustuko dituenari, ez dadila duda mudatan ibili. Gonbidatuta dago ospakizunetara"

utzi eta Zubietara etorri nintzen familiarekin. Aitak, Andaluzian ikasi zuen musika eta hemen trikiti botoiduna erosi zuen. Aitaren bidetik jarraitu nahi izan nuen nik ere zaletasunari dagokionez, eta kitarra ikasi nuen. Aita eta bioi ez zitzaigun batere kostatzen sagardotegietan giroa jartzea. Euskalduna izanik euskaraz kantatzeko nire lantegiko nagusiak eta biok ere bikote polita osatzen genuen!".

Chinchilla Lasarten bizi izan da urte luzez, orain bost urte Andoainera etorri zen arte. "Han Senblante Andaluziako sortzaileetako bat izan nintzen, Andaluziako kultura maite dudalako, eta Andoainetara nintzenean ez nuen zalantzarik eduki bertako elkartean bazkide egiteko".

Oso giro jatorra topatu zuen Triana elkartean, eta ahal duen guztietan hurbiltzen da Nafarroa Plazako egoitzara, lagunartean egotera. Aiurriko irakurlea larunbateko jaialdira gonbidatzeko eskatu diogu, azkenik. "Etor dadila, nagiak eta erreparorik astinduta! Ez gara ugari bertako bazkideak, baina bai abegikorak! Jendar-teko giro atsegina eta Andaluziako doinuak eta grazia gustuko baldin baditu, ez dadila duda mudatan ibili. Gonbidatuta dago ospakizunetara. Abesti eta dantzekin gozatzeko gain, Andaluziako gastronomia probatzeko aukera edukiko du; plater tipikoen artean, bereiziko nituzke ganbak, gazta, txorixua, kamaroiak.... Mokadu horiek denak ardo fin on batekin bustiz gero, egundoko arratsalde eta ilunabarra igoroko du".

PIANO DOINUAK NAGUSITUKO DIRA ASTEBURUAN BASTERO KULTURGUNEAN

Hasiera ezin hobe hamargarren piano jaialdiari

Piano emanaldi bikainak eskaini zituzten Andoaingo musikariek, bai larunbatean baita astelehenean ere, piano jaialdiaren hamargarren edizioaren harira antolatu duten erakusketa tokian.

Datorrenaren aurrerapen gozagarria izan dira. Txalogarria da Seiasle taldeak azken urtetan aurrera daraman ekimena, pianoa gazteen artean sustatzeko ahaleginean.

Txiki-txikitatik hasita jada ibilbide luzea egin duten hainbat artista gazte bildu ziren Basteroko erakusketa gelan larunbatean, eguardi partean, ordebeteko ikuskizuna eskaintzeko. Pianoaren aurrean, Myriam Ulanga, Estitxu Sistia eta Uxue Ricon jarri ziren; zeharkako txirula Elena Gorrotxategi jo zuen; biolinarekin, berriz, Mikel Urdangarin aritu zen. Irene Soliño dantzariak, azkenik, Dionas izenburuko azken piezan hartu zuen parte, musikari ikutu estetiko ikusgarria emanez.

Liszt, Falla, Schubert, Usandizaga eta Ricon konpositoreen sormen lanak interpretatu zituzten. Robeto Muño Donostiako kontserbatorioko irakasleak Jose Mari Usandizaga musikariaren biografia laburra azaldu zuen ekitaldian zehar.

Arratsaldean, berriz, eguneko bigarren kontzertuaren txanda heldu zen, Marina Sierra, Javier G. Sarmiento, Myriam Ulanga eta Uxue Ricon piano jotzaileen eta Rodrigo Samano biolontxelo jotzaileen eskutik.

Ulanga eta Ricon ama-alebek, lau eskutara, euskal kantugintzako hainbat abesti interpretatu zituzten ere.



Myriam Ulanga, Mikel Urdangarin, Elena Gorrotxategi, Uxue Ricon, Irene Soliño eta Estitxu Sistia.

BI MUSIKARI OSPETSU

Andoaingo musika eskolan ikasten hasi ostean, jada pianoaren munduan tokia hartu duten Amaia Zipitria eta Borja Rubiños andoaindarrek *4 mende, 4 eskutara* izeneko kontzertua eskaini zuten astelehenean. Elkar hartuta, lau mendeetatik ezagunak egin diren zenbait musika sortzaileraren obrak interpretatu zituzten: J.S. Bach, Mozart, Schubert, Tchaik-

vosky, Falla, Ravel, Berio eta Eulogio Saldias. Hain zuzen ere, kontzertua Saldias musikari andoaindarrak sorturiko pieza batekin amaitu zuten (Komedia edo Sainete lirikoa ekin-tza batean).

Ibilbide oparoa daramate bi musikariek, eta une paregabe eta pribilegiatua bizi izan zuten Basterora bertaratu ziren musika zaleek. Eurek ere egundoko poza azaldu zuten, jaioterrian

kontzertua eskaini ahal izateagatik. Zipitria, egun, Musikene, Euskal Herriko goi mailako kontserbatorioko errepertorio irakaslea da, eta besteak beste, Donostiako orfeoiko piano-jotzailea. Irungo kontserbatorioan akonpainamendu irakaslea da; Opus III perkusio taldeko piano-jotzailea da, eta Euskadiko orkestrako zein Nafarroako Orkestra Sinfonikako kolaboratzailea.

Musika eskolan ikasten hasi ostean, jada pianoaren munduan tokia hartu duten Amaia Zipitria eta Borja Rubiños andoaindarrek 4 mende, 4 eskutara izeneko kontzertua eskaini zuten astelehenean

ARGAZKI ERAKUSKETA IGANDERA ARTE ZABALIK

Igandera bitarte argazki bilduma ikusgai dago Basteroko erakusketa gelan. Bertan, aurreko bederatzi edizioetan parte hartu duten piano jotzaile gazteak, euren irakasleak, antolatzaileak, ikusleak eta gurasoak ageri dira. Jose Ignacio Unanue argazkilaria da argazki gehienengilea. Ondo zaindutako erakusketa da, eta Veronica Ordozgoiti arduratu da diseinuaz.

PIANO JAIALDIAREN HAMARGARREN EDIZIOA

Larunbat eta igandez, ehunka piano jotzaile Bastero arituko dira, Gipuzkoako makina bat musika eskoletatik etorritak. Parte hartzaileak adinaren eta mailaren arabera igoko dira taula gainera. Goizeko nahiz arratsaldeko saioetan parte hartzaileek domina eta agiria jasoko dituzte.



Uxue Riconek konposatu duen Dinas piezarekin amaitu zen kontzertua.



Amaia Zipitria eta Borja Rubiños, sona handiko Andoaingo piano jotzaileak.

POSTONTZIA

OZTOPO GUZTIEN GAINETIK EUSKARAZ BIZIKO GARA



Kontseilua

“Mezu bat errepikatzen ari zaigu behin eta berrir: Ez zarete nor, ez zarete askeak, euskaraz bizitzeko neurriak hartzeko!!! Azken asteotan behin eta berrir, eta are indar handiagorekin, ari zaigu hori gogorarazten: Estatueta-ko ordezkariak Uztartitzeko Herriko Etxeak euskara ofizial izendatu izana epaite- gietara eramanez, UEMAKo hainbat udali aktak euskaraz idazteagatik helegiteak jar- riz, Ipar Euskal Herriko ikastolei elkartasunezko di- ru-laguntzak baliogabetuz, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako euskara dekre- tuak auzitegietara eramanez. Estatueta-ko ordezkariak ez ezik, Nafarroako Gobernuak ere bide bertsuari ekin dio, besteak beste, Baztango Udalak onartutako euskara planari helegitea tarteratuz. Euskaraz bizitzeko nahiari

erantzuteko hartzen diren erabakien zein neurrien kon- trako erasoaldi gero eta bor- titzagoa pairatzen ari gara, hain zuzen ere, gure nahia, gure etorkizuna, haien esku dagoela gogorazazi nahi di- gute, oztopoen zein ukazioa- ren bidez, edota euskarari berari balioa kenduz. Halere, egoera hori irauli egin behar da. Honez gero, hainbat udalek oztopoei au- rre egin eta haien jardunari eusteko determinazioa era- kutsi dute. Determinazio ho- ri txalotu eta babestu behar dugu, euskaraz bizi nahi du- ten herritarrak alboan behar dituzte, eta urratsa eman ez dutenei ere dei egin behar diegu gure nahia errealtate bihurtzeko urrats berriak eman ditzaten. Norbanako, eragile, era- kunde, instituzio guztien de- terminazioa da oztopo hauei guztiei aurre egiteko dugun bide eraginkorra. Guztiok batera lortu egingo dugu. Ez dago gure arteko batasuna- ren indarra geldituko duen ezer. Bada garaia urratsa emateko: Oztopoen gainetik euskaraz biziko gara!”.

Manifestazioa Donostian
Otsailaren 28an
17:30ean, Gipuzkoa plazan

oztopoen gainetik
EUSKARAZ
Biziko
gara

Manifestazioa
Otsailaren 28an, Donostian
17:30ean, Gipuzkoa Plazan

HITZ-GEZIDUNAK

	Atabal joleak	▼	Erabat bustirik	▼	Gaskoiniako	▼	
	* IRUDIKO ESTATUA		Petatxuak		Itzaina		
		▶		▼		▼	
	Ile multzo	▶					
	Erreka handiak	▶					
Apurtu	▼	Barazki hostotsua	▼	Abertzaleen Batasuna	▶	5. eta 4. bokalak	▶
Txizagura		Dardarak		Areago		Hizki grekoa	
▶		▼		▼		▼	
Izukur	▶						
Bizkaiko ibaia							Ipar EH-n, zein
▶							
		Gaixo	▶			Ukatzeko	▶
		Garai, aldi				Kontso- nantea	▼
Bizkaieraz, iratzea	▶	▼	Joan den urteko	▶	▼		
Ateak			Abantzu, kasik				
▶			▼			Interjekzioa	▶
						Hidrogenoa	
Ukapenak	▶				Leku hartan	▶	▼

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

EZKER ESKUIN: 1.- Baldar, zarpail. 2.- Nitrogenoaren ikur kimikoa. Oldar. Bokala. 3.- Zilarraren ikur kimikoa. Modua. Europar Batasuna. 4.- Bigarren pretsona. Röntgen. Ez ar. 5.- Iragartzeko. 6.- Euskal atzizkia. Kontsonantea. Eguzki. 7.- Joan aditzaren erroa. Sarrera nahiz irteera. Iparretarrak. 8.- Bokala. Ez gaziak. Oxigenoaren ikur kimikoa. 9.- Kalentura.

GOITIK BEHERA: 1.- ... da, aski da! 2.- Kontsonantea. Eguratsa. Sufrearen ikur kimikoa. 3.- Musika nota. Nasa, moila. Garen hauek. 4.- Areago. Kontsonantea. Helduak euskalduntzeko erakundea. 5.- Bizkaiko ibarra. 6.- Nafarroako urtegia. Kontsonantea. Eako. 7.- Harrapa ezak! Denbora tarte. Kare, bokalik gabe. 8.- Kontsonantea. Goxoki, poliki. Bokala. 9.- Bat etortze, ados egon.

ERANTZUNAK

EZKER ESKUIN: 1. Trakets. 2. N. Eraso. A. 3. Ag. EHA. EB. 4. HIK. R. Erre. 5. Iragarpen. 6. Koi. N. Eki. 7. Oa. Ale. IK. 8. A. Gezek. O. 9. Sukarra.

GOITIK BEHERA: 1. Nahikoa. 2. T. Giroa. 3. Re. Kai. Gu. 4. Are. G. AER. 5. Karantza. 6. Esa. R. Eaz. 7. Ioi Epe. Ki. 8. S. Emeki. A. 9. Adeniko.

N	A	H	K	A	O	U	
I	O		K	I	A	R	A
O		Z	A	I	A	R	A
Z		E	I	R	E	A	O
	R	O	K	A	R	A	I
I	R	R	A	L	A	X	T
O	U		A	B	A		T
K		I	V	A	B	I	
S	A	D	A				
A	I	A	L	I	T	A	
G	B		A				



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA




KIROL ALBISTEAK

Ganbara saski taldekoen denboraldi bikaina



Allurralde kiroldegian aste hasieran prestaketa saioan ateratako argazkia.



Aitor Urretabizkaia saski jokalaria.



Kadeteen entrenatzailea Julen Alvarez.



Mikel Irigoien infantilen entrenatzailea.

Ganbara taldeko jokalariei zein entrenatzaileak pozik daude orain arte egindakoarekin eta, orokorrean, denboraldi ona izaten ari direla diote. Senior mailako taldea pozarren dago, datorren urtera begira kategoriaz igotzeko aukera ikusten dutelako.

SENIOR MAILAKO TALDEA

Aitor Urretabizkaia senior jokalaria izateaz gain bigarren entrenatzailea da eta taldea ondo ikusten du. Ligako bigarrenak geratu eta igoera fasera sartu dira. "Pozik gaude eta taldean ilusioa nabari da. Datorren urtean bigarren mailan jokatzeko gogoz gaude". Horretarako, sei talderen artean lehenengo hiru-retain sailkatu beharko dute. Aitorren ustez, ez da oso zaila hori lortzea. Partidu bat jokatu dute jada eta irabazi egin dute. "Ondo hasi gara eta hori garrantzitsua da. Aurrera begira gainontzeko partidua irabaztea da gure asmoa. Lehenengo ur-

tean ez genuen lortu eta aurtun gauzak ondo ateratzen ari zaizkigu. Animikoki oso motibaturik gaude".

Xabi Olasagirre presidentearen ustez, garrantzitsua da erronkak izatea, motibatu egiten direlako. "Aurtun gure helburua fase horretan sartzea zen eta lortu dugu. Esperientzia hartzen ari dira". Argi dago, beraz, borrokan jarraituko dutela eta helburuak lortzen saiatuko direla.

KADETE MAILAKO TALDEA

Bestalde, Ganbara taldeko gaztetxoak ere gogor ari dira lanean. Kadeteak ere asko ikasten ari dira eta hori oso garrantzitsua iruditzen zaio entrenatzaileari. "Hiru urteko ziklo bat izan dugu eta asko aurreratu dute. Ederki pasatzen dute eta taldean oso giro ona nabari da", dio **Julen Alvarez**ek. Denboraldia ondo hasi bazuten ere, maila horretan jokatzeko zaila egiten ari zaie eta larri dago taldea. "Oraindik formatzen ari

gara; lana eginez eta gogor entrenatuz, jokalaria bezala garatuko dira". Gainera, emaitzak alde batera utzita, aurkari zaharragoekin jokatu asko ikasi eta hobetzen dutela uste du.

INFANTIL MAILAKO TALDEA

Mikel Irigoien infantilen entrenatzailea da eta berak dioenez, zorte ona izaten ari dira: "Espero baino hobeto doa denboraldia. Zerotik hasi gara eta lau edo bost partidu irabazi ditugu". Gazteak gogoz ikusten dituzte: "Entrenatzera etortzen dira eta partiduetan ere gogoia jartzen dute".

Hala ere, emaitzei ez diete horrenbeste garrantzia ematen, izan ere, beraien helburua ikastea da. "Gazteek saskibaloian jokatzeko ikastea da kirola egitea da helburua. Batez ere, hezi egin nahi ditut epaileekiko, taldekideekiko, aurkari-ekiko eta entrenatzaileekiko errespetua izaten". Oraindik haurrak direla eta ondo pasatu behar dutela dio entrenatzaileak.

Zanpatuz taldearen irteera eskiatzera, martxoaren 14an

martxoak 14. larunbata

ESKIATZERA



IRTEERA

ARETTE

La Pierre Saint Martin

Aukerak:

Alpino

Snow

Raketak

IRTEERA: 06:30etan
ITZULERA: 20:00etan
San Juan Plazan

Hasiera arrakastatsuaren ondoren, Urnietako Zanpatuz mendi taldeak bigarren irteera antolatu du Aretteko eski-gunera. Martxoaren 14an izango da, goizeko 06:30ean irtenda eta iluntzeko 20:00eta-

rako itzultzeko asmoarekin. Izena emateko epea martxoaren 8an amaitzen da. Zerrendak honako tokietan eskuragarri daude: Xauxar, Guria, Amañur, Kanto eta Ikasmin akademia.

Jardunaldi historikoa UKEn

Aurreko asteburuko jardunaldia historiara pasako da UKE eskubaloien atalarentzat. Klubaren historioan ez zen jardunaldi bat gogoratzenean zortzi norgehiagokak irabazten ziren, UKEk dituen talde bakoitzarekin. Horieta bi garaipen Andoainen aurkako derbiak izan ziren.

Zortzi garaipen hauetatik zazpi Urnietan izan ziren, eta poztasuna nabarmena zen zaletuen artean. Hori guztia entrenatzaile, jokalaria eta elkarte arduradunen lan handiari esker lortzen da.

Urnietako eskubaloiko jokalariei, zorionak eta benjondeizuela.

Erremontean finaleraino

Ander Goikoetxea eta Ibai Martiarena UKEko erremonteko jokalaria Euskal Herriko finalera sailkatu dira, ligas-

kan erakutsitako jokoari bukaera dotorea emanez. Zortzi bikote onenen artean erabakiko da txapela nork jantzi.

Urniet eta Andoain goi goian

Aurreko jardunaldia:

Urniet 5-1 Pasaia
Deustp 0-3 Euskalduna
Asteburuko partidak:
Euskalduna-Munibe
Astigarraga-Urniet.

Preferente maila

Sailkapena, futbola:

1. Orioko	48
2. Euskalduna	46
3. Urniet	44
4. Baskonia	38

Euskalduna 2-1 Ontzerri

Aurreko jardunaldia:

Euskalduna 2-1 Ontzerri
Ikasberri 1-1 Segura
Asteburuko partidak:
Ontzerri-Ikasberri
Texas-Euskalduna

Lehen Erregionala, Kopa

Sailkapena, futbola:

1. Segura	10
2. Euskalduna	10
3. Ikasberri	8
4. Ontzerri	7

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larremendi
Kultur Buztina

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritz

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.com. Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.com

Erredaktoreak:

Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.com

Publizitatea:

Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com. www.aiurri.com.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa

arduraduna: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.com. Tel.: 943 300 732

Banatzzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

OTSAILAREN 27TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- **"Romeo y Julieta"**, ballet proiektzioa. Iraupena: 158 minutu. 20:15. Auditorioa. Aldez aurretik: 7,5 euro. Egun berean: 9 euro. Martxoak 4, asteazkena.

Urnietan

- **"Dios mio pero que te hemos hecho"**. Otsailak 27, ostirala. 22:00. Martxoak 1, igandea. 18:30.
- **"Festa dezagun gaurdanik geroa!"**. 18:00. Lekaio. Martxoak 1, igandea.

Antzerkia

Urnietan

- **"Gau arabiarra"**, aurre estreinaldia. Iraganaz, bizitakoaz, arbasoez, pertsonaiek bizitzan zehar izaten dituzten eraldaketek, eta abarrez hitz egingo du. Aktoreak: Kandido Uranga, Ramon Agirre, Ane Pikaza, Ainhoa Aierbe eta Martxelo Rubio. 19:00. Sarobe. 4 euro. Martxoak 4, asteazkena.
- **"Euli giro"**, aurre estreinaldia. Aktoreak: Ainhoa Casina, Miren Gaztañaga, Erika Olaizola. 19:00. Sarobe. 4 euro. Martxoak 21, larunbata.

Musika

Andoain, Bastero

- **Piano jaialdia:** Piano kontzertuak eta erakusketa. Otsailak 28-martxoak 1.
- **Musika jaialdia:** Emakume musikariek eskainitakoa. 21:30. Auditorioa. Martxoak 6, ostirala.

Manifestazioa

Donostia, Kontseilua

- **"Oztopoen gainetik euskaraz biziko gara"**. 17:30. Gipuzkoa plaza. Otsailak 28, larunbata.

Ospakizuna

Andoain

- Andaluziaren egunean, besteak beste, dantzari txikiak eta Merche Montes. 19:00. Nafarroa plaza. Otsailak 28, larunbata.

Kalejira

Andoain

- Pausoz pauso kalejira. 12:00. Bastero plazatik. Martxoak 7, larunbata.

Ikuskizuna

Andoain, Bastero

- **"Verne txikia"** haur ikuskizuna. 17:00. Auditorioa. 4 euro. Martxoak 15, igandea.

Lehiaketa

Andoain, Bastero

- Inauterietako argazki lehiaketa. 250 euroko sari bakarra. Lanak aurkezteko eguna: 10:0-13:00 / 16:30-19:30. Otsailak 27, ostirala.

Batzarra

Andoain

- Udalaren batzarraldia. 19:00. Udaletxea. Otsailak 26, osteguna.

Korrika

Andoain, Irunberri

- Korrika batzordearen eskutik bertso afaria: Lasarte eta Andoaingo bertsolarien arteko lehia. Txartelaren prezioa 18 euroko da, eta erosteko azken eguna martxoaren 3a izango da. Salgai: Irunberri, Ernaitza eta AEK. 21:00. Irunberri. Martxoak 6, ostirala.

Erakusketa

Andoain, Bastero

- **"Andoaingo kaleak denontzat berdin (=)":** Genero ikuspegitik hobetu beharreko puntuen mapa biltzen duen erakusketa. Irekiera: 19:00. Doan. Martxoak 6, ostirala.

ZORION AGURRAK


ZORIONAK



Costanza Mateok otsailaren 27an 5 urte bete ditu. Ondo-ondo pasa bihotza, muxutxoak osaba-izeba eta amonaren partetik.

URNIETA

ZORIONAK



Unaxek 5 urte bete ditu aste honetan, otsailaren 26an zehazki. Zorionak guztiak eta amonaren partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Martxoaren 1ean **Cristinak** eta **Pedrok** urrezko etziak ospatuko dituzte. Zorionak etxeko partetik.

ANDOAIN

ZORION AGURRAK AIURRIN

• diseinua@aiurri.com
• **Whatsapp bidez:** 619 163 537.

"Irabazi Ganemos Andoain"



Ezker Anitza-IU, Equo eta Alternativa Republicana alderdi politikoek Andoaingo Udal hauteskundeetarako

koalizioa osatu nahian dabil-tza. Urigainen egin zuten aurkezpena aurreko ostiralean.

"Hari gara", hitzorduak

Otsailak 28, larunbata
10:00 Urigain. Andoain.

Martxoak 3, asteartea
19:00 Lekaio. Urnietan.

Andoaingo Ernai eguna

Martxoak 7, larunbata
11:00 Tailerra Gaztetxean.
14:00 Bazkari herrikoia Gaztetxean.
17:30 Bilkura Juanitan Alkainen: "Emakume Langileak Zutik".

18.00 Buruntzantzan batu-kada.
21:30 Pintxo potea Gaztetxean.
22:30 Kontzertuak Gaztetxean: Ezustean eta Patxuko Nice.

DATORREN AIURRI ASTEKARIA MARTXOAREN 6AN ARGITARATUKO DA

Kilkerren soka

HITZALDIA

Martin Ugalde:
diskurtso baten
kartografiak

LARRITZ ARIZNABARRETA

Martxoak

3

asteartea

19:00

Bastero kulturgunea

Ekitaldi berean

aldizkariaren aurkezpena egingo da

ANTOLATZAIL

111AKADEMIA

